

GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA PRAKTIKETAKO KONTRATAZIOAREN BIDEZ

Bizkaiko Foru Aldundiaren [71/2011 FORU DEKRETUA](#), martxoaren 29koa, praktikaldiko kontratazioaren bidez enplegarritasuna sustatzeko diru-laguntzak emateko oinarriak eta deialdia ezartzen dituena.

HELBURUA	30 urterainoko gazteak praktiketarako kontratatzeari laguntzak ematea.
ONURADUNAK	Bizkaiko enpresak, beren forma juridikoa edozein dela ere; enpresari indibidualak eta profesionalak; ondasun-erkidegoak; sozietate zibilak eta elkarte, fundazio eta irabazi-asmorik gabeko gainerako erakundeak. Guztiek honako baldintzak bete beharko dituzte: 1. Sozietatearen egoitza eta egoitza fiskala eta lantokia Bizkaian izatea. 2. 250 langile baino gutxiago edukitzea. 3. Aurreko betekizun horiek betetzen ez dituzten enpresek ezin dute, zuzenean edo zeharka, % 25 baino gehiagoko partaidetza izan erakunde onuradunean. 4. Enpresari indibidualak izatekotan, ohiko egoitza Bizkaian izatea.. 5. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
DIRUZ LAGUNDUKO DIREN EKINTZAK	Gutxienez 6 hilabete edo 12 hilabeteko iraupena duten kontratuak egitea 30 urte baino gutxiagoko gazteei. Kontatuak 2011/1/1 eta 2011/12/31 bitartean egindakoak izango dira.
DIRUZ LAGUNDUKO DIREN GASTUAK	Urteko edo sei hileko soldataren %30a. Kontratu bakoitzeko gehienezko diru-laguntza 7.000 eurokoa izango da 12 hileko kontratuetan eta 3.000eurokoa sei hileko kontratuetan. Ezingo da inola ere < 2.000 € izan 12 hileko kontratuetarako eta 1.500euro sei hilekoetarako. BFAko lan poltsan izena emanda daudenetakoren bat kontratatzen den kasuetan 2.000euro igo daiteke 12 hileko kontratuetarako eta 1.500euro 6 hilekoetarako.
AURKEZTEKO EPEA	Maiatzaren 1 eta abuztuaren 31 bitartean, kontratuak urtarrilaren 1a eta uztailaren 30a bitartean egindako kasuetarako. Urriaren 1etik 2012ko urtarrilaren 31 bitartean, abuztuaren 1 eta abenduaren 31 bitartean egindako kontratuetarako. Hasieran 6 hileko kontratua eginez gero eta kontratua luzatuz gero luzapenaren dataren arabera egingo da eskaria
INFORMAZIO GEHIAGO	LEARTIBAI GARAPEN AGENTZIA 94 616 90 88 nurrutibeaskoa@leartibai.com

OHARRA:

Praktiketako kontratazioa egin ahal izateko baldintzak betetzen dituzten Curriculum Vitae-ak Bizkaiko Foru Aldundian aurki ditzakezue.

www.bizkaia.net > Sailak > Ekonomi Sustapena > Enplegua eta ezagutzaren kudeaketa > Praktiketako kontratuak eskatzen dituzten gazteei eta enpresei zuzendutako zerbitzua.